

JUAN GARMENDIA LARRAÑAGAREN
LIBURUAREN, *DE ETNOGRAFIA VASCA* *,
AURKEZPENEAN ESAN NITUAN ITZAK
(1976-12-18)

Jaun-andreok!

«De Etnografía Vasca» dio sarreran gaur agertzen diguten liburu onek.

Etnografia ikaskuntza bat da: etnia eta onen muin dan ezikera edo kultura ikasten eta irakasten dituana.

Ezikera, berez, aidetikakoa da, espirituzkoa: ez da ikusgaia ezta ikutgaia ere. Bainan ikutgai diran gauzai lotua dabillena.

Material edo ikutgai asko, batez ere tresnak eta lanabesak erakusten dizkigu Garmendia jaunak bere liburu ontan.

Tresna eta lanabes orietarik ba-ditugu aipatuak emen ugari. Leenik *ardaz-leen* tresnak. Or ageri dira liñoaren miñak, liñazitik asita eun-oial biurtzen dan artekoak, amaika esaunden mami billakatu diranak. Lanbide au ordea-mende onen aseraz gero geldierazia.

Ondoren *lixebalarien* lanak agertzen ditu, bere gaien artean, tiña, txorroska, autsa, etab., aipa dituala.

Zenbat eta zenbat ipui oroierazi dituzten gure ibai-bazterretako lixeba-arriak! Lanbide au ere oraintsu geldierazia.

Sagardogilleen lanak gero, auen tresnak xeetasun aundiakin agerreraiaz. Adibidez, *tolara* nolakoa dan garbiro adierazten digu.

Nekazaritza eta bere lanbide eta tresnak ere or agertzen dira. *Laya* leenik: bear-bada lur-erabilketan abereen laguntza asi baiño leenagoko langaia. *Sega*, dirudienaz ez ain zarra; baiñan igitaiaren ondorengon eta berau toki askotan baztertu duana. Igitaria, lanabes adarkide eta garrangaduna, *Mari-muruko*'ren iduriko eta bere adierazgarria, ipuietan zeregin asko duena. Gure eskuetatik ordea eta burrundegitik oso aldendua.

Eskuarea, *area* eta *besarea*, tresna aipagarriak, erakusten dizkigu ondoren, eta denak —batez ere leenengoa— zenbait sinismen bitxiak eta ipuiai eratxi-kiak. Oroi Beyrie-*Inhurria*'ko alabari gertatuazaz, gauean eskuare billa landara irten zala-ta.*

Ibil-erabilirako tresnak erakusten dizkigu gero: lera, gurdia, uztarria, e.a. Arrek ba-dabiltza oraino, naizta ari dira gutxitzen, antzeko erainkinak nagusitzen diren neurrian. Ibillaldi luzea egiña dute ordea mendez-mende gure errietan.

Olagintzari buruz Garmendia jaunak egin digun azterketa eta agertaldia garrantzia aundikoa dala iduri zait. Merezi ere ba-du lanbide orrek, baita bere

* Editado en San Sebastián: Caja de Ahorros Provincial de Gipuzkoa. 1976.

inguru dabiltzan meabilketak eta ikazkintzak eta arren langai eta tresna bereziak ere. Auen inguru dabiltzan ipuiak adierazten digute zenbait lanabesen eta egikunen berri ireluai ebatsita gizakiak leenengoz jakin zutela.

Bestalde, lanbide auetako tresnan bidez, euren egille eta erabilarien bizikera ikasten al dugu. Berak erakusten al dizkigute ikusgune batzuek beintzat: leenen, euren iduria, neurria eta gai-mota; bigarren, euren egillearen xedea eta anitzo-jakintza; irugarren, euren eginkizunak; laugarren, euren erabili dituanaren bizikera; bostgarren, elkartean —etxean eta auzoan— duten zerikusia; azkenik, euren loturik datorzkigun sinismen, esaunda eta beste oroipenak. Adibidez: Ardatzak berekin du liñaia eta onek amukoa; beren iduri, neurri eta gaien bidez adierazten digute euren eginkizuna; baita ardazleen tajua eta, ifioiz, auen bizikera; ardazleen elkarte, billera, joku eta ipuien oroigarri dira.

Beste gai batez ere ari zaigu liburu au: eriotzaren eta onen inguruko gertakizun, gogoeta eta esaundezaz. Gai garrantzitsua benetan. Beste bat litzake mundu au il bear dugula jakingo ez bagenduke.

Eriotzak, ezbearrak, naigabeak, beste askoi bezala, sorrerazten dizkio betidanik euskaldunai zenbait galde, gizakiari bakarrik sortzen zaizkion galdeak: *Ni nor naiz? Noren erabakiz sortu da munduan gizakia? Zertarako? Zer da gure elburua?*

Ez gera gure baitan, guri eta gure mundu oni eragiten dion norbaiten baitan baiño: Jainkoaren baitan, alegia. Orrela erantzun izan du euskaldunak. Gogoeta ortan esoindua agertu zaigu mendez-mende euskal-ekizera edota etniaren eraen nagusia. Gogoeta ori baztartzen ba-degu, euskal-etniari bere orain arteko muiña eta zati garrantzitsuena kentzen diogu.

Gai auezaz ari da bada gaur agertzen zaigun liburu bikain au. Berau irakurtzen duanak, euskal-ekizaren ikusgune aundiak ikasiko ditu. Orregaitik eskerrak damazkiogu bere egilleari eta bera argitarazi duen Gipuzkoa'ko Aurrezki-Kutxa'ri.